

NARRATIBA

Amaieratik hasierarako bidea


DECEPTION ISLAND

Xabier Artola
Alberdania 2010
45 orrialde. 8 euro

Leire ZUBELDIA

«Deus ez da amaitzen nork bere barruan hala sentitzen duen arte». Hori irakurri zuen "Deception Island" ipuineko protagonistak film baten kartelean. Bere bikote harremana amaituta zegoela sentitu zuen, mutil-lagunak Patagoniara eta Deception Island-era prestatutako bidaiari uko egin, eta K2-ra espedizioan joan zenean. Gaur, berriro sentipen bera loratu zaio Aneri bulegoan dei bat jaso duenean: Asier, biriketako edemak jota dago K2-n, 7.000 metrotik gora eta oxigenorik gabe. Anek Iruñeko ospitalean egiten du lan. Bertatik zuzenduko dute erreskatea, Karlos Ramirez mediku aditua, Asierren lankidea eta Aneren bikotekide ohia buru dela.

Mendizalea gailurretik bizirik jaisteko lasterketaren kontaketa protagonistak bizitzari eta giza-harremanei buruz egiten dituen gogoeta eta hausnarketekin nahasten du Xabier Artola ipuingile donostiarrak. Besteak beste, haur bat eduki eta elkarrekin hura hezteko proposamenaren aurrean Asierren isiltasun salagarria oroitzen du Anek, edo mutil-lagunak bizitzeari buruz esaten zizkionak: «ertzetik aldendu gabe ez dago itsaso zabala ezagutzerik». Asierrentzat mendia da bizitza eta mendian ibil-



tzea da bizitza. Bitartean, Ane, ertzetik begira geratzen da, orduro helbide elektronikoko sarrerako ontziari hiruzpatalau aldiz erreparatuz, edo Himalayako eguraldi iragarpena kontsultatuz. Egileak liburuaren sarrerako aipu batean dioen bezala, «irauten badakigu, bizitza ahazten zaigu».

Orduak pasa ahala, Asier urrunago sentituko du Anek, eta Karlos Ramirez doktorea gertuago. «Bizitza zer da ba, zulo batetik irten eta beste batean sartuz ibiltzea baino, leizerik leizeko bidaia gorabeheratsua; azkenekotik izan ezik, baina beste guztietatik ateratzen gai-

tun, nola edo hala. (...) eta zulokako bidaia horretara ohitu egiten da bat (...) (...) baina oxigeno falta dagoenean ez dago ohitzerik, ez mendian ezta bizitzan ere». Ezin aurreratuko dugu, K2-ko ezbehar hau Asierren azken zuloa -edo gailurra- izango ote den edo ez; baina Anek zulotik irten beharko du, ziurrenik, beste zulo batean sartzeko. Bizitzan bezala, istorio honetan ere amaierak beste hasiera bat dakar. Eta «deus ez bada amaitzen nork bere barruan hala sentitzen duen arte, deus ez da hasten, nork bere barruan hala erabaki arte». Finean, hori da 2010eko Donostia Hiria Kutxa Saria irabazi duen ipuinaren sakonean kontatu nahi zaiguna: amaieratik hasierarako bidea.

Narratzailea bigarren pertsona zuzentzen zaio protagonistari. Pertsonaia bera izan daiteke narratzaile hori, bere buruarekin bakarriketan. Gainera, ahots kontalariak hikaz hitz egiten du beti. Hikak ematen dituen aukerak ongi asko baliatu ditu Artolak: lehenengo paragrafoan "dizkin" aditza irakurtzea nahikoa da protagonistaren sexuaz jabetzeko.

Istorioren testuingurua gaurkotasuneko gai bat izateak duen eraginaz gain, egileak kontaketa ematen dion bizitasunak, zehaztasunak eta abiadurak ere irakurlearengan tentsio sentsazioa lortzen dute, baina oxigenoa agortu gabe. Hasi eta bukatu irakurtzen den horietakoa dugu "Deception Island". Laburra, baina emankorra, amaieratik hasierara dagoen bidea bezala.



Víctor MORENO

¡Ah, la literatura!

Para algunos escritores, si no fuese por la literatura, la realidad no existiría.

O, para ser más precisos que los que lo afirman, la realidad sería distinta a la que es, incluso para aquellos que no han leído ni un prospecto escrito por Almudena Grandes, y ni tienen idea de cómo es la realidad. Sólo la literatura es capaz de explicarla, la realidad que sea, mucho mejor que la física cuántica, que ésta, además, no la entiende nadie.

Por esta razón poderosa, no entiendo que los historiadores se obcequen en dar explicaciones del pasado y del devenir apelando a causas económicas, políticas y alimentarias, que no alimenticias como decía un Carpanta de la dicción. Todo está en la literatura. Es ella la madre partera de la historia en cualquiera de sus dimensiones.

Por ejemplo, si se trata de juzgar la naturaleza perversa o inmaculada de un régimen político, no me anden ustedes con tiquismiquis económicos o sociales, por favor. Ni tengan el mal gusto, éste menos aún, de sacar a relucir la cantidad de presos que hay en las cárceles. Porque la existencia de reclusos no mide para nada la salud de una sociedad, sino la incapacidad individual de éstos, que no saben aprovecharse de las ocasiones que les ofrece el sistema de bienestar para su realización personal y colectiva.

Es la libertad de creación artística la vara de medir la grandeza o miseria en que se elevan o descienden las democracias o las dictaduras. ¿Que quién lo dice? No un fontanero, desde luego, sino Vargas Llosa.

Lo que significa que, cuando los escritores pueden escribir y publicar, es que vivimos en jaula. El resto de las sevicias perpetradas por el Estado de Derecho para seguir siendo más Estado que Derecho, no son ni importan nada.

KALERATU BERRIAK



HISTORIA SOBRE EL DESTINO

BROOKLYN

Colm Tóibín
Lumen, 2010
304 páginas. 18,90 euros

Ellys es una chica que vive en un pequeño pueblo de Irlanda, donde no encuentra trabajo, de modo que, cuando le surge la oportunidad, no dudará en mudarse a Brooklyn. Allí encontrará su primer amor y la promesa de una vida nueva. Sin embargo, trágicas noticias de Irlanda la obligarán a regresar a su país natal.



UN DESCUBRIMIENTO CLAVE DEL ESPIONAJE

EL TELEGRAMA ZIMMERMANN

Barbara W. Tuchman
RBA, 2010
320 páginas. 22 euros

La ganadora del Premio Pulitzer Tuchman desvela en este trepidante libro de espías la verdadera historia de cómo los Estados Unidos entraron en la Primera Guerra Mundial y de cómo un telegrama cambió el curso de la historia, rompiendo oficialmente las relaciones diplomáticas entre Estados Unidos y Alemania.




RETRATO DE UNA GENERACIÓN

A TODA VELA

C. H. B. Kitchin
Periférica, 2010
192 páginas. 17,50 euros

Lydia Clame tiene treinta años y no se siente joven. Pero no tiene miedo, al contrario que sus amigas, de convertirse en una solterona, pues la belleza que encuentra en lo que la rodea le salva de la realidad. Una novela agrisulce y crítica, escrita por uno de los talentos más desconocidos de la narrativa británica.



EUSKALDUNON POSTMATERIALISMOAZ

MAIATZEKO ARTOAREN ARDURA

ETA BOST SEME... | Patxi Juaristi
Arabako Aldundia, 2010
110 orrialde. 13 euro

Nolakoak gara gaur egungo euskaldunak? Zenbat aldatu gara azke urte hauetan? Zeintzuk dira gure benetako balioak, beldurrak, iritziak eta pentsamoldeak? Galdera hauek eta beste batzuk erantzuten saiatu da Soziologian doktorea den Patxi Juaristi, Becerro de Bengoa saiakera saria irabazi duen lan honetan.